

# «Interneten miraria ugaritasunaren logikan dago»

David de Ugarte elkarrizketatzea bizitzaz hitz egitea da. Aro berriko filosofoa da, etorkizuna orainera ekartzen duen pentsalaria. Sare sozialei buruz aritu gara, jabetza intelektualaz, nazionalismoaz, enpresa eredu berriez.

ELI POMBO



PENTSALARITZAT definitzen dute batzuek, ziberpunk eta ziberaktibistatzat besteek. Egia esan, curriculum zabala du 39 urteko madrildar honek. Sare sozialei buruzko hiru liburu idatzi ditu: *11M. Redes para ganar una guerra* (2004), *El poder de las redes* (2005) eta *De las Naciones a las Redes* (2009), azken hori Pere Quintana, Enrique Gómez eta Arnau Fuentesekin batera. Aurki *Filés: democracia económica en el siglo de las redes* argitaratuko du —lanaren kopia jada sarean dago—. Bere liburu guztiak domeinu publikoari uzten dizkio, CC lizentziak garai berriko ultrakontserbadoretzat jotzen ditu eta Wikipediaren “kudeaketa demokratikoa”rekiko kritikoa da.

**Sareko komunitateen erabilerak gure etorkizuna baldintzatu al dezake?**

Komunitate birtualak “klusterrak” dira, beren barnean elkar konektatutako azpi-sareak, herri bateko koadrilak bezala. Ez dira “erabiltzen”, euren parte gara.

Koadrila klasikoekiko duten desberdintasuna da ez daudela lurraldeari lotuta, baizik eta nahitaezko ikuspegiei. Aldiz, euren kideen arteko harremanari eta konfiantzari dagokionez, antz handia daukate. Horregatik modernitatearen irudikarieratik —irudikari nazionala kasu— oso urrun dauden nortasunak garatzen dituzte.

Benedict Andersonek nortasun nazionaleri “irudizko nortasun” deitu zien, kide batek ez baitzituen besteak ezagutzen, irudikatu egiten zituen, idealizatu, azken finean abstrakzio bat baitzen. Hori ez da horrela gertatzen blog, e-posta eta antzerakoen bidez sortzen diren sare sozial birtualetan.

**Beraz, nazionalismoak porrot egingo du? Munduko hiritar sentituko gara?**

Nik ez dut “munduko hiritar” izaera horretan sinesten. Uste dut unibertsalarekiko enpatia senti daitekeela, baina nortasun erreal eta zehatzetik abiatuta.

Egia da baina, nortasun horiek gero eta zerikusirik handiago dutela elkarbizitzaren esperientziarekin eta talde elkarrizketarekin, eta gero eta gutxiago lurralde batekiko irudizko harremanarekin.

Uste dut euskal nazionalismoan benetan interesgarria zera dela, nortasun errealean aldeko erreakzio bezala sortu zela —garai hartan nortasun horiek lokalak eta familia artekoak ziren—. Horregatik teoriko batzuek euskal nazionalismoa “tribala” izateagatik kritikatzeko dutenean, nik bere arazoa juxtu kontrakoa dela argudiatzen dut. Tribal izaera hori, bakoitza nola deitzen den

**“Demokrazia ekonomikoa praktikan honako hau da: hierarkia oso gutxi, deliberazio birtual asko, bozketa oso gutxi, esperimentazio asko eta etengabeko ikasketa prozesua”**

dakizun komunitate erreala da etorkizunarekin eta gauza zehatzekin lotzen duena; aldiz, XIX. eta XX. mendeko irudizko nazio izae-rak iraganera lotzen du.

Horregatik, uste dut galdera ez dela nazionalismoak etorkizunean bere lekua izango duen –izango duela, nazionalismoen aroan nortasun erlijiosoek izan zuten bezala–, baizik eta gaur egun kategoria nazionalen barruan kudeatzen ditugun talde nortasun horiek nola eboluzionatuko duten.

**Aurki Filés: *democracia económica en el siglo de las redes* liburua argitaratuko duzu. Zer da demokrazia ekonomikoa?**

Edozer gauzaren produkzioak gauza material-gabeetan sortzen du bere balioa gero eta gehiago: ezagutza teknikoa, diseinua, sormena... Produktu gehiago sortzeak eta berritzeak brikolajearen antza du gero eta gehiago. Sareko esperientziak hain zuzen ere horretarako prestatzen gaitu. Baina sarean ezagutza sortzen den modua ez da hierarkikoa, kolaboratzailea baizik; ez da espezializazioan oinarritzen, espezializazio anitzean baizik.

**“Ziberaktibista izatea hiritar izatea da, ez uztea historia eta etorkizuna izan daitezen komunikabideek dioten hori, baizik eta gainontzekook egiten dugun hori”**

Zer da demokrazia ekonomikoa? Hori onartzea. Dibertsitateak ere enpresaren barnean bizi behar duela onartzea. Mende honetan enpresa (kooperatiba) definitzen duena ez dela produktu bat edo produktu linea bat, baizik eta sostengatzen duen komunitateak ezagutza sortzeko, ikasteko eta esperimentatzeko duen gaitasuna.

Praktikan: hierarkia oso gutxi, batere ez, ez esategatik; deliberazio birtual asko; boz-keta oso gutxi; esperimentazio asko eta etengabeko ikasketa prozesua.

**Zer da ziberaktibista izatea?**

Sare banatuen munduan hitzak duen botereaz jabetzea da. Hori zaila da, Madrilgo M13koa, Frantziako azarokoa edo Greziako abendukoa ikusten ez duzun arte. Baina mugimendu bera bazegoen 2000. urtean Manilan Estradaren erorketa gertatu zenean, adibidez. Ziberaktibista izatea hiritar izatea da, ez uztea historia eta etorkizuna izan daitezen komunikabideek dioten hori, baizik eta gainontzekook egiten dugun hori.




Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1  
20003 Donostia (Gipuzkoa)  
Tel: 943 44 00 99  
aquariumss@aquariumss.com  
www.aquariumss.com



## “Wikipediak munduaren ideologia eta ikuskera zehatza kontatzen du”

WIKIPEDIAN edonork idatz dezake, baina administratzaileek soilik daukate eskubidea aldaketak atzera botatzeko, artikulua ezabatzeko, ezabatutako edukia ikusteko, erregistratutako erabiltzaileen IPak blokeatzeko... Hainbat artikuluren kasuan egon izan da eztabaida, ideologia eta ikuspegi anitzen talkaren ondorioz eta edukiren bat ezabatua izan denean zentsura salaketak ere eman dira sarean. Duela pare bat urte David de Ugartek berak bizi izan zuen antzerako kasu bat. Norbaitek berari buruzko artikulua bat idatzi zuen, beste bat ez zegoen ados eta eztabaida korapilatsua piztu zen, bere izena eta biografia osoa zalan-tzan jarri. Sarrera hura ezabatua izan zen eta gaur egun ez dago berari buruzko informaziorik Wikipedian, ezta eztabaida haren datu zehatzik ere.

### Zer iritzi duzu Wikipediaz?

Ez naiz egia bakarraren ideia Modernoaren aldekoa. Interneten miraria ugaritasunaren logikan dago. Guz-

tientzat dago lekua. Elite txiki burokratiko bati egia bakarra zein den erabakitzeke agintzea guztiz barregarria da, nahiz eta elite hori boluntarioa eta “eskuza-bala” izan. Ez du zentzurik. Blog eta aldizkari asko izan ordez, egunkari bakarra izango bagenu bezala da; egunkari horretan argitaratuko dena erabakitzeke “aristokrazia parte-hartzaile” batek bozkatuko balu bezala. Hori da “urritasunaren sorkuntza artifiziala” deitzen dioguna.

Wikipedia gehiago da “testuingurupedia” bat. Hau da, munduaren ideologia eta ikuskera zehatza kontatzen du, ez ikuspegi unibertsala. Lerro editoriala dauka, eta ondorioz, bere mafia eta arbitrariotasun txikiak ere baditu. Pentsatu behar dugu testuinguru asko, “testuingurupedia” asko sustatu behar direla, blog edo aldizkari asko dauden bezala.

Mundu “wikipediko” batean, gutxiengoak –batera gehiengoaren direnak–, ez lirateke egongo edo mespre-txuzko orri-oin batera mugatuko lirateke.

Tekno-inperialismoa (egile eskubideak ordaintzea eta menpekotasun teknologikoa) edo ezagutza gizarteari itzultzea. Ez al dago erdibiderik, CC lizentziak esaterako?

*Creative Commons* (CC) lizentziek inolako lotsarik gabe diote arazoa konpontzeko, jabetza intelektualaren monopolioa dutenei noraino ustiatu nahi duten erregulatzen utzi behar zaiela. Abolizionismoa esklabotzaren aurka jartzen hasi zen garaian Lessig bezalako batek esklabotzaren irtenbidea nagusiei bitarteko neurriak aukeratzeko uztea zela esan balu bezala da. Barregarria da.

Zergatik diozu CC lizentziak garai berriko ultrakontserbadoreak direla? Jabetza intelektuala eremu guztietan defendaezina den une batean berau sostengatzen duten salbuespen juridikoak eta legeak zalantzan jartzen ez dituen sistema bat saltzen dutelako.

CC lizentziek aurreikusten duten “Aitortu” eta “Partekatu berdin” ereduak ez al da sorkuntza jabetza publikoan uzteko modua?

CC lizentziek jabetza publikoaren aukera gutxi gorabehera onartzen dute, hori bai, zuzenbide anglosaxoiaren kategorien barnean. Arazoa da CC lizentziak sistema bat direla, ez zuzenbide eredu bat ezta lizentzia zehatz bat ere. Sistema horrek, eurek eman-

dako datuen arabera, ez ditu eratorritako lanak onartzen kasuen %50 baino gehiagotan eta ez du “erabilera komertziala” ahalbidetzen kasuen %80 baino gehiagotan. Eta hori ez da inondik inora jabetza publikoa, “komunaren aldekoa”.

Jabetza intelektualaren erreforma behar dela esan izan duzu, lanak jabetza publikora ahal bezain azkar igaro daitezkeen. Nola eragin daiteke hori lortzeko?

*Lobby* egin behar da, protestak eta boikotak egin behar dira eta noski honelako neurriak babesten dituen edozein alderdi politikoren alde egitea saihestu behar da: 18 urteko gazteak kartzelara bidali filmak jaisteagatik; generikoak debekatu eszzipiente gehienak patentatuak daudelako; edo dirutza publikoa ordaindu zerbitzu publikoaren esku geratuko ez den softwarea erabiltzeagatik.

Nola ikusten duzu etorkizuna? Zein izango da Interneteko iraultza?

Sare banatuen eta beraz, boterea banatuta dagoen mundu bat sortzen ari da Internet. Hori da egiten ari den iraultza. Nahiago nuke garai hau gizateria askatasun eredu berrietan–“plurarkia” bezalakoak– sakontzen eta demokrazia ekonomia bezalako esparrutara eramatea zer zen ulertzen hasi den aroa bezala gogoratua izatea etorkizunean. ■

**“Creative Commons (CC) lizentziek inolako lotsarik gabe diote arazoa konpontzeko, jabetza intelektualaren monopolioa dutenei noraino ustiatu nahi duten erregulatzen utzi behar zaiela”**